

## Letren Fakultatearen plana 2021/2022 ikasturteko irakaskuntzarako (2021/09/08 eguneratua)

Ondoren azaltzen den planak oinarri du "2021/2022 ikasturteko Irakaskuntza eta Ikaskuntza Planifikatzeko Oinarriak" dokumentua, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 29an onartu zuena (honi atxikiak).

- 2021/2022 ikasturtearen aurkezpen ekitaldia lehen mailako ikasleentzat irailaren 13an egingo da (astelehena):

9.00-10.30 Areto Nagusian: Ingeles Ikasketak  
9.30-11.00 0.12 ikasgelan Itzulpengintza eta Interpretazioa; 11.00-12.30 Areto Nagusian: Historia  
11.30-13.00 0.12 ikasgelan: Artearen Historia  
13.00-14.30 Gradu Aretoan: Geografia eta Lurralde Antolakuntza;  
15.30-17.00 Areto Nagusian: Filologia  
17.30-19.00 Areto Nagusian: Euskal Ikasketak

OHARRA: ikasleek maskara jantzita izan beharko dute nahitaez.

- 2021/2022 ikasturteko eskolak irailaren 14an hasiko dira (asteartea).

### 1. Irakaskuntzaren egokitzapenak

#### 1.1. Jardun presentziala eta telematikoa uztartzea

- a) Irakasgaien formatu presentzian ohikoa den lan metodologia erabiltzen da, baina ikasle batzuek urrunetik dihardute, aldi berean, CISCO WEBEXren bidez edo UPV/EHUK zehaztuko duen plataforma telematikoaren bidez; horrela, irakaslearekin eta ikaskideekin jarduteko aukera dute. Ikaslea, halakoetan, ikaskuntza ingurune bimodalean ari da.
- b) Oro har, irakasgaien matrikulatutako ikasleen % 33 ikasgelan egongo da eta % 66k **streaming** bidez jasoko dute eskola, CISCO WEBEX edo UPV/EHUK zehaztuko duen plataforma telematikoaren bidez. Hau da, hiru ikasle talde egongo dira, bakoitzean ikasleen % 33, eta horietako bakoitza hiru astetik behin egongo da ikasgelan.
- c) Dena den, ehuneko horiek aldatu egin ahal izango dira osasun krisiaren bilakaeraren arabera, eta osasun agintariek zein akademikoek hartuko dituzten erabakien arabera.
- d) Geografiako eta Lurralde Antolakuntzako Graduaren kasuan presentzialtasuna % 100 izango da maila guztietan.
- e) Artearen Historiako Graduaren kasuan presentzialtasuna % 50 izango da bigarren, hirugarren eta laugarren mailan.
- f) Hori dela eta, ikasgeletan multimedia baliabideak jarri dira (web kamera, pantaila eta mikrofonoa), eskolak modu ez-presentzian jaso ahal izateko

beharrezkoak direnak. Baliabide horiek erabiltzeko prestakuntza eskainiko du fakultateak.

- g) Irakasleek irakats betebeharren % 100a ikasgelan beteko dute kasu guztietan.
- h) Salbuespenena izango dira COVID-19arekiko arriskuak ebaluatu eta gero Prebentzio Zerbitzuaren baimena ([medikua@ehu.eus](mailto:medikua@ehu.eus)) izango duten irakasleak, horiek urrunetik eta modu ez-presentzialean emango ahal izango baitituzte eskolak.
- i) Irakaskuntza egokitzeko sistema honetarako, irakasleek, beharrezko ikusiz gero baina inola ere ez nahitaez, saioak grabatu ahal izango dituzte, ikasleek beranduago kontsultak egiteko aukera izan dezaten.

## 1.2. Tutoretzak

Ikasleek irakasleekin izango dituzten tutoretza saioak izango dira presentzialak edo urrunetik egindakoak, CISCO WEBEX edo antzeko beste edozein programaren bidez (Teams, Skype, Zoom...), horietarako ezarritako ordutegiaren barruan. Horiez gain, erakundearen helbide elektronikoaren bidez edo eGelaren bidez erantzun ahal izango dira zalantzak.

Edonola ere, tutoretzak egiteko moduari dagokionez, unean-unean indarrean diren erabakiak bete beharko dira (<https://www.ehu.eus/eu/web/iip/tutoretzen-araudia>).

## 1.3. Erakundearen helbide elektronikoa

Irakasle guztiek UPV/EHUk emandako helbide elektronikoa (@ehu.eus) erabili beharko dute bai fakultateak bai unibertsitateko gainerako atalek bidaliko duten informazio instituzionala jasotzeko eta, modu horretara, egoera hain berezian eginkizunak behar bezala betetzeko agintari akademikoek hartuko dituzten neurrien berri izateko. Era berean, irakasleek erakundearen helbidea erabiliko dute ikasleekin harremanetan jartzeko posta elektronikoaren bidez.

## 2. Curriculumetik kanpoko praktikak

Kontuan izan beharko da "2021/2022 ikasturteko Irakaskuntza eta Ikaskuntza Planifikatzeko Oinarriak" dokumentuko 2.4 atalean adierazitakoa (12. orria)

## 3. Ebaluazioa

Kontuan izan beharko da "2021/2022 ikasturteko Irakaskuntza eta Ikaskuntza Planifikatzeko Oinarriak" dokumentuko 3. eta 5. ataletan adierazitakoa (13. eta 14. orriak).

## 4. Osasun Publikoaren Batzordeak 2021/03/11n<sup>1</sup> onartutako prebentzio neurri higieniko eta sanitarioen aplikazioa Letren Fakultatean

---

<sup>1</sup> "Medidas de prevención, higiene y promoción de la salud frente a COVID-19 para centros universitarios en el curso 2020-2021", Osasun eta Unibertsitateen ministerioena, Osasun Publikoaren Batzordeak onartua 2021/03/11n ([https://www.msrebs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19\\_Medidas\\_Centros\\_Universitarios\\_11-03-21.pdf](https://www.msrebs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov/documentos/COVID19_Medidas_Centros_Universitarios_11-03-21.pdf))

#### 4.1. Ikastegian eta ikasgeletan modu mailakatuan sartzea

- a) Ikasgela bikoitietan emango diren irakasgaiak ordu puntuan hasiko dira (9.00, 11.00, 13:00..) eta saioaren amaiera ordua baino 15 minutu lehenago utzi beharko da gela (10:45, 12:45, 14:45..).
- b) Ikasgela bakoitietan emango diren irakasgaiak laurdenean hasiko dira (9.15, 11.15, 13:15..) eta saioaren amaiera orduan utzi beharko da gela (11:00, 13:00, 15:00..).
- c) Ikasgeletako sarrera mailakatua izango denez (bikoitiak batetik, eta bakoitiak bestetik), eta ikasgela horietako batzuk Elurreta eraikinean daudenez, saioa hasi eta ikasgelara 20 minutu beranduagora arte sartzeko aukera eman behar diete irakasleek ikasleei (ikasgela bikoitietan 11:20, 13:20..; eta bakoitietan 11:35; 13:35..).
- d) Eskolak eman dituzten irakasleek zabalik utzi beharko dituzte ikasgelako leiho guztiak, kasu guztietan, airea berriztatzen joan dadin bi saioen arteko ordu laurdenean.

#### 4.2. Segurtasun eta higiene neurriak ikasgeletan eta laborategietan

- a) Ikaslea ikasgelako mahai berean eseriko da beti, zerrendako ordenaren arabera, trazabilitatea errazteko kutsatze kasuetan. Horretarako, irakasleak, lehen eskola egunean, mahaiak esleituko dizkie ikasleei, alfabetoari jarraituta, eta segurtasun tarteak gordeta (mahai huts bat ikasle biren artean). Erabili ahal izango diren mahaiak markatuta egongo dira, eta zenbakiak izango dituzte.
- b) Hala irakasleak nola ikasleak maskara erabili beharko dute ikasgelan saio presentzialetan, bai eta bulegoetan eta espazio komunean ere.
- c) Ikasgelen sarreran gel hidroalkoholikoa egongo da, bai eta maskarak, eskularruak eta musuzapiak botatzeko edukiontzi berezia ere.
- d) Ikasgela barruan paper bobina bat eta esprai fungizida-bakterizida egongo da.
- e) Ikasgeletako ekipo informatikoetako teklatuak film paper gardenez estaliko dira eta irakasle bakoitzak desinfektatu egin beharko ditu erabili aurretik, baita arratoiak ere.
- f) Entzungailuak erabili behar diren irakasgaietan, ikasle bakoitzak bereak eraman beharko ditu.
- g) Ikasgeletako leihoak irekita egongo dira eskolak ematen diren bitartean, ondo aireztatuta egon daitezten.
- h) Letrak I eraikineko 1. solairuan dauden hizkuntza laborategiek (1.42, 1.43, 1.44, 1.45, 1.47 eta 1.48) aire girotuko ekipoak dituzte, edo aire hotzekoak edo airea berritzen dutenak. Ekipo horiek ziurtatzen dute airea % 100ean berritzen dela, kanpoko sartzen baita, eta, horrexegatik, korridorera ematen duten laborategi horietako ateak itxita egon behar dira.
- i) Goizez eta arratsaldean erabiliko diren ikasgelak egunean bi aldiz desinfektatuko dira; eta txanda bakarrean erabiliko direnak, izan goizez izan arratsaldean, egunean behin.
- j) Laborategiak erabiliko dituzten irakasleak tresneria desinfektatzeaz arduratuko dira.

#### 5. Korridoretatik eta espazio komuneetatik ibiltzea

- a) Eraikinaren barrualdeko joan-etorriak eskuin aldetik egingo dira, lurrian jarritako gezien norabideari jarraituz.

- b) Eraikin barruko joan-etorri guztietan maskara jantzita izan beharko da.
- c) Komunetan ere maskara erabili beharko da, eta adi egon gehieneko edukiera adierazten duten seinaleei.
- d) Eraikineko espazio komunetan, hall-a eta klaustroa barne, osasun agintariak ezarriko duten pertsona kopurua baino ezingo da bildu, nahiz eta maskara jantzita izan.
- e) Jatorriko edo helburuko ikasgela edo bulegotik gertuen dauden eskailerak edo irteera erabiliko dira.
- f) Sarrerako ateetan eta korridore guztietan gel hidroalkoholikoa egongo da, bai eta maskarak, eskularruak eta musuzapiak botatzeko edukiontzi bereziak ere.

#### 6. IRI eta AZPkoentzato atseden tokia Letrak II eraikinean

Gehieneko edukiera errespetatu beharko da. Lokalean paper bobinak, gel hidroalkoholikoa eta espari fungizida-bakterizida egongo dira denek erabiltzen dituzten tresnak desinfektatzeko (mahaiak, mikrouhina...). Espazio hori aireztatuta egon beharko da denbora guztian.

#### 7. Letren Fakultatekoak ez diren langileak

Mantentze lanak egiten dituzten enpresek beren kontingentzia plana jakinarazi beharko dute, bai eta fakultatera joango diren langileen datuak eman ere.

Neurri hauek aldatu ahal izango dira, osasun eta hezkuntza agintariak hartuko dituzten erabakien arabera. Horren harira, UPV/EHUko ikastegien funtzionamendurako neurrietan ezarritakoari jarraituko zaio une oro (<https://www.ehu.eus/eu/zentroen-funtzionamendurako-neurriak>).